

MIRARI PEREZ

Deskribapena: Kike Mirari Perezen atzetik bere kontsultan sartzen agertzen da.

Mirari: “Ea, aurrea!”

Kike: “Bale.”

Deskribapena: Kike eta Mirari kontsultan eserita ageri dira.

Kike: “Zeintzuk dira normalean kontsulta honetan artatzen dituzuen arazoak?”

Mirari: “Ba, ahotsari dagokionian bi motatako arazoak daude gehienetan. Batzuk funtzio okerrak eragindakoak eta besteak jaiotzetik, genetikoak edo gaixotasun baten ondorioz agertzen direnak. Gehienak izaten dira funtzionalak. Batzuk eragina dutenak eztarrian, ahots-kordetan eta beste batzuk ez. Hau da, hasiera batean ahotsa hondatzen juten da, tinbrea, hau da, garbitasuna galdu egiten da, hitz egite tonua bera juten da, gutxio modulatu da, erritmoa axkarregi izan daiteke, e, oso azkar hitz egitearena edo intentsitate oso fuertian hitz egitea eta gutxi erabiltzea gai ez izatea. Horrek hasiera batean ez du eraginik izaten, ez luke zergaitik eduki behar, ahots-kordetan. Azkenian, hemen ikusten den bezela, e, begira, ahots-kordak hauek dira.”

Deskribapena: Mirarik Kikeri ordenagailuko pantailan erakusten dizkio ahots-kordak eta ondoren ahots-korden imajinak ageri dira mugimenduan.

Kike: “Kontxo! Hauek dira, e?”

Mirari: “Bai, bai. Gerta liteke, ba ahots-korda bat ondo izatetik, hondatzea. Eta hondatu da ba, noduluak ikusi, handitasunak, irregulartasunak eta beste motatako gauza asko, polipoak, kisteak, en fin, e, esparrua zabala da.”

Kike: “Eta ze jende mota dator?”

Mirari: “Izaten dira bai gimnasiako irakasleak, bai irrati edo telebista esatariak, e, bai telefonistak, bai komertzialak, hau da, e, hitza, e, bere lanerako behar dutenak, hitza eta ahotsa, e, gehien bat. Eta bestalde daude, ba bueno, arruntak, pertsona arruntak, ondo moldatzen ez direnak, ahots arazoak dituztenak eta konpondu nahi dutenak.”

Kike: “Aizu, Mirari, ahotsa asko erabiltzen dugunok, zer egin beharko genuke ahotsa zaintzeko?”

Mirari: “Ahotsa zaintzeko lehenbizi garrantzia eman, jakin hortxe dagola, jakin gure ahotsa dela gure nortasun adierazle, gure izaeraren adierazle, gure lekuko, gure salatari, e? Eta orduan egin beharko genuke, ba, zure lanbidean beharko baduzu, lehenbizi tinbrea, hitz egite tonua, modulazioa, erritmoa, ahoskatzea, intentsitatea kontrolatzen ikasi, e? Eta prestatu, e, jakin mugak badituela ahotsak, mugak ez gaintitu eta arazoa baldin badugu kontrolatzen joan tarteka eta bueno, bidea jarri hori konpontzeko!”

Kike: “Ba nik jarraituko ditut aholku hauek, e? Premia badut eta!”